



EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK 2009

Hauteskunde-Mahaietako
kideen Eskuliburua

Hauteskunde - Batzorde Zentralak gainbegiratuea

Ministro Kontseiluaren Akoridoaren bidez onartua



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DEL INTERIOR

Aurkibidea

Sarrera	3
Hauteskunde-mahaiko kideen egitekoak hauteskunde-egunean –kronologikoki–	4
08:00etan	
1. Hauteslekuan bildu	5
2. Hauteskunde-materiala egiaztatu (hautestontziak, kabinak, gutun-azalak, boto-orriak, agiriak eta inprimakiak)	6
3. Hauteslekua ondo dagoela egiaztatu	10
4. Ikuskatzaileek aurkeztutako izendapen-agiriak jaso, taloiekin erkatu eta ikuskatzaileei kargua eman	10
08:30ean	
5. Mahaia eratzeko akta egin	13
09:00etan	
6. Bozketaren hasiera	14
7. Bozketaren nondik norakoa	15
Arratseko 08:00etatik aurrera	
8. Bozketaren amaiera (20:00)	21
9. Mahaikoek eta ikuskatzaileek botoa emateko unea	22
10. Boto-emaileen zerrenda zenbakiduna sinatu	22
11. Boto-zenbaketa	22
12. Bozketaren emaitza aditzera eman	25
13. Boto-zenbaketaren akta egin	25
14. Bilkura-akta egin	26
Mahaiaren eginkizunen amaiera	
15. Hauteskundeetako agiriak gutun-azaletan prestatu	27
16. Gutun-azalak aurkeztu	28
Ordena Publikoa	30

Sarrera

2009ko ekainaren 7an Europako Parlamenturako hauteskundeak egingo dira Espainian.

Hauteskunde-egunean hauteskunde-mahaiko kide titular edo ordezkoi izatea egokitu zaizu, eta horregatik jaso duzu eskuliburu hau.

Mesedez, irakur ezazu arretaz. Horrela, behar bezala bete ahal izango dituzu dagozkizun egitekoak.

Hauteskunde-mahaiko kide izatea herritarren betebeharrak saihestezina da. Hauteskunde-mahaiak 60.000 inguru izaten dira, eta horiek osatzeko 500.000 pertsona baino gehiago behar dira (kide titularrak eta ordezkoiak); zu horien artean. Hain zuzen, hauteskundeak ezingo lirateke egin zuek guztiok ahalagina egiteko prest ez bazeundete.

Eskuliburu hau Barne Ministerioak egin du, Hauteskunde Batzorde Nagusiak gainbegiratu du, eta Ministroen Kontseiluaren akordio bidez onartu da.

NOLA AUKERATZEN DIRA HAUTESKUNDE-MAHAIAK KIDEAK?

Udaletxean jendaurreko zozketa egiten da hauteskunde-mahaietako kideak hautatzeko. Hauteskunde-atal bakoitzean erroldaturikoak sartzen dira zozketa horretan, bi baldintza hauek betez gero: hirurogeita bost urtetik beherakoa izatea eta irakurtzen eta idazten jakitea.

Hauteskunde-mahai bakoitzeko kide hauek hautatzen dira:

- Mahaiburua eta bi ordezkoi (lehenengo ordezkoi eta bigarren ordezkoi).
Kide horiek Batxilerreko edo bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua izan beharko dute, edo, hori izan ezean, Eskola-graduatu edo baliokidea.
- Bi mahaikide eta bina ordezkoi (mahaikide bakoitzeko, lehenengo ordezkoi eta bigarren ordezkoi).

ZEIN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR DITUZTE HAUTESKUNDE-MAHAIETAKO KIDEEK?

Bozketa-egunean hauteskunde-mahaian aritzen diren mahaikideek eskubide hauek dituzte:

- 61,20 euroko dieta.
- Inoren konturako langileek eta funtzionarioek, ordaindutako baimena bozketaren egunerako, laneguna bada; eta hauteskunde-egunaren ondoko lanegunean, lanaldia bost orduz murriztea.
- Gizarte Segurantzako Sistemaren babesa, hauteskundeetan parte hartzeagatik etor litezkeen gertakizun eta egoeretarako.

Kargu horiek nahitaezkoak dira; hortaz, hauteskunde-mahaietako kide izendatutako herritarrak hauteskunde-egunean beren eginbeharra betetzera ez agertzea hauteskunde-delitua da.

Hauteskunde-mahaiko kideen egitekoak hauteskunde-egunean –kronologikoki–



08:00etan

1. Hauteslekuan bildu.
2. Hauteskunde-materiala egiaztatu (hautestontziak, kabinak, gutun-azalak, boto-orriak, agiriak eta inprimakiak).
3. Hauteslekua ondo dagoela egiaztatu.
4. Ikuskatzaileek aurkeztutako izendapen-agiriak jaso, taloiekin erkatu eta ikuskatzaileei kargua eman.

1. HAUTESLEKUAN BILDU

Bozketa-eguneko goizeko 08:00etan hauteslekuan egon beharko dira mahaiburua, mahaikideak eta ordezkokoak.

Gerta daiteke:

1. Mahaiburua ez aurkeztea. Hala bada, hauxe izango da ordezkatzehurrenkera:

- Mahaiburuaren lehenengo ordezkoa.
- Hura ere ez badago, bigarren ordezkoa.
- Ordezko bietako bat ere ez badago, lehenengo batzordekideak jardungo du mahaiburu.
- Hura ere ez badago, berriz, bigarren mahaikideak.

2. Mahaikideak ez aurkeztea hauteslekuan, edo mahaiburua ordezkatu behar izatea. Hala bada:

- Ordezkoek hartuko dute haien lekua.

Goian azaldutakoari jarraituta ere Mahaia eratu ezin bada, Legeak agindu bezala hiru kide bildu ez direlako (mahaiburua eta bi batzordekide), honako hau egingo da:

- 1.** Bertaratu diren mahaikideek gertatutakoaren berri eman behar diote mahaikide izatea egokitu zaiela jakinarazi dien Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, telefonoz edo telegrafoaren bidez, eta gainera, gertatutakoa idatziz jaso eta posta ziurtatu bidez bidali behar dute.

Bertaraturiko kideek gertatutakoaren berri ematen ez badiote Batzordeari, gobernu-agintariek jakinarazi beharko diote.

- 2.** Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak mahaia zeinek osatuko duten erabakiko du, eta bere esku izango du hauteslekuan daudenei mahaikide izateko agintzea.

Esandakoa egin arren, 10:00ak jotzerako mahaia ezin izan bada osatu, bertan dauden kideek edo gobernu-agintariek Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari eman beharko diote horren berri, eta ondoren Batzordeak beste bozketa baterako deia egingo du hurrengo bi egunen barruan.

Deia hauteslekuko atean ipiniko da, eta Hauteskunde Batzordeak beste kide batzuk izendatuko ditu.

2. HAUTESKUNDE-MATERIALA EGIAZTATU

Noiz edo noiz ondoren aipatutakoren bat falta dela ohartuz gero (hautestontzia, kabina, boto-orriak, gutun-azalak, agiriak eta inprimakiak), mahaiburuak Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinaraziko dio berehala, falta dena ekar dezan.

Mahaiburua eta bi mahaikide bertan direla, jarraian zehaztutako guztiak mahaian dauden edo ez egiaztatu beharko da:

A. HAUTESKUNDEETARAKO HAUTESTONTZIA

Hautestontzia itxita eta zigilatuta egon behar da, inork ezer aldatuko ez duen berme gisa. Horregatik, zigilua hautsi edo hondatuz gero, mahaiburuak ahal duen moduan ziurtatuko du itxiera, baldin eta ezin badiote garaiz ekarri beste hautestontzi bat Eskualdeko Hauteskunde Batzordetik.

B. BOTOA AUKERATZEKO KABINA

Kabina hori bozkatzen den gela berean egon beharko da, gelako sarreraren eta hauteskunde-mahaiaren tartean, hain zuzen.

C. GUTUN-AZALAK ETA BOTO-ORRIAK

Europako Parlamenturako hauteskundeetan, boto-orri eta gutun-azal zuriak erabiliko dira.

Egun osoan, eta bozketak irauten duen bitartean, Europako Parlamentuko hauteskundeetara aurkeztu diren hautagai-zerrenda guzti-guztien gutun-azal eta boto-orri nahikoa egon behar da.

Boto-orriak kabinako apaletan jarriko dira. Ez badago apal nahikorik, edo boto-orri guztiak ez badira sartzen apaletan, aparteko mahai txiki bat jar daiteke kabinaren ondoan, eta hautagai guztien orriak jarri bertan.

D. HAUTESKUNDEETAKO AGIRIAK

- MAHAIARI DAGOZKION HAUTESLEEN ERROLDAKO ZERRENDAREN BI
ALE. HAUTESLE-ERROLDAREN BULEGOAK ZIURTATUTA.

Europako Parlamenturako hauteskundeetan, herritar espainiarrek zein Europar Batasuneko beste estatu kideetako herritarrek eman dezakete botoa.

Egokitu zaizun mahaian Europar Batasuneko herritarrek ere bozkatuko badute, agirien artean izan beharko dituzu, Espainiako hautesle-eroldako zerrendaren bi ale ziurtatuz gain, Europar Batasuneko herrialdeetako hautesle atzerritarren eroldako zerrendaren bi ale ziurtatu ere.

Bi zerrenden ale bana jarriko da hauteslekuaren sarreran.

Beste alea mahaikoen eskueran egongo da, dena delako boto-emailea erroldan ageri den ala ez begiratu ahal izateko.

- AKTAK

1. Mahaiaren eraketa-akta (ikusi eredia eta betetzeko jarraibideak orrialdean)
2. Boto-zenbaketaren akta (ikusi eredia eta betetzeko jarraibideak orrialdean)
3. Bilkura-akta (ikusi eredia eta betetzeko jarraibideak orrialdean)

- BOTO-EMAILEEN ZERREDA ZENBAKIDUNA, botoa eman duten hautesleen izenak jasotzeko.

[illegible][illegible]

- BOZKATU IZANAREN ZIURTAGIRIA, hala eskatzen duten boto-emaileei emateko.

ELECCIONES AL PARLAMENTO EUROPEO 2009
EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK 2009

EU/la Elector/a emite su voto
en las Elecciones al Parlamento Europeo 2009. katalunial botoa
emite aux Eleccions Parlamentarials 2009/les hauteskundeak.

EU/la President/a / Mahakuma

EU/la Elector/a comparece en
esta Mesa Electoral para emitir su voto a las Elecciones al Parlamento Europeo 2009 sin que pudiera ser aceptado por: katalunial botoa
Audi-mahai funtzioari ezarri da, Europako Parlamentarials 2009/les hauteskundeak botoa emateko, baina ez ziteke botoa onartu, Aholakua onartu ezin delako.

(*)

☐	no figurar inscrito en el Censo / ez da ageri zerbitzu indibiduala
☐	no justificar suficientemente su identidad / ez da nahikoa berbera izanaz justifikatu
☐	suspensión de la votación / ezin da botoa emateko ezarri da
☐	no constitución de la Mesa / Mahakua ez da osatu

EU/la President/a / Mahakuma

(*) Señalase con una cruz lo que proceda.
Aholakua dagokionez garrantzitsua gogoratu.

BOZKATU IZANAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA

- MAHAIAN DIHARDUTEN IKUSKATZAILEEN IZENDAPEN-AGIRIEN TALOIAK

IKUSKATZAILEAK.

- Hautagai-zerrenda bakoitzak bi ikuskatzaile izenda ditzake hauteskunde-mahai bakoitzeko.
- Ikuskatzaileek beren izendapen-agirian aipatzen den mahaian bakarrik jardun dezakete.
- Ikuskatzaileek mahaikoei lagundu ahal diete eta haien eztabaidetan parte har dezakete, hizpidearekin baina botorik gabe. Parte-hartze horretan, mahaian akreditatutako ikuskatzaileak, hautagai-zerrenda berekoak badira, elkarren ordeztatu daitezke.
- Erreklamazioak eta protestak egin eta ziurtagiriak eskatu ahal izango dituzte.
- Akreditatuta dauden mahaian bakarrik bozka dezakete, nahiz eta ez egon mahai horretako hautesle-errodan.

Izendapen-agiriak: hautagai-zerrendetako ordezkariak ikuskatzaileak izendatzeko erabiltzen dituzten agiriak dira.

Kopia paperean igorritako izendapen-agiriaren taloiak ontzat joko dira, bai eta dokumentu indibidual berdinetan igorritakoak ere, sistema informatikoen bidez editatu eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeek dagokien zigorra jarri badie.

Taloiak izendapen horren kopia dira.

[illegible]

IZENDAPEN-AGIRIAREN EREDUA

- DENA DELAKO MAHAIKO HAUTESLEEN ZERRENDAN AGERTU BAINA BESTE MAHAI BATEAN IKUSKATZAILE DIHARDUTENEN IZENDAPEN-AGIRIEN TALOIAK (hala badagokio).

Ikuskatzaileek akreditatuta dauden mahaian bozkatu behar dute, eta ez inskribatuta dauden mahaian.

Horregatik, inskribatuta dauden mahaiko kideek jakinaren gainean egon behar dute beste mahai batean ikuskatzaile dihardutela, eta, horretarako, hauteskunde-agirien artean izendapenaren kopia izango dute.

[illegible]

IZENDAPEN-AGIRIAREN TALOIAREN EREDUA

- HIRU GUTUN-AZAL ZENBAKITUTA, 1, 2 eta 3 zenbakiekin (gutun-azal horietan jasoko dira hauteskunde-agiriak, behin boto-zenbaketa amaituta, eta eskuliburu honetan dagokion atalean zehazten da bakoitzaren edukia), eta gutun-azalak EMAN IZANAREN AGIRIAK.

[illegible]

GUTUN-AZALAK EMAN IZANAREN AGIRIAREN EREDUA

- Hala badagokio, ikusmen-urritasuna izan, irakurri eta idazteko braille sistema ezagutu, % 33ko minusbaliotasun maila edo handiagoa izan, eta talde honentzako boto-prozedura berezia erabiltzeko asmoa adierazi dutenen ZERRENDATA, eta boto-sistema hori erabiltzeko arauzko AGIRIAK, zerrendan jasota dauden hautesleei banatzeko (agiri horiek dituen karpeta/gutun-azal bat egongo da zerrendan agertzen den hautesle bakoitzarentzat).

3. HAUTESLEKUA ONDO DAGOELA EGIAZTATU

Hauteslekuak bozketa egiteko baldintza egokiak izan beharko ditu, eta atalek eta mahaiek behar bezala seinaleztatuta egon beharko dute.

Mahaiko kideek akatsen bat sumatzen badute, berehala horren berri eman beharko diote, telefonoz, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, akatsa konpon dezan.

4. IKUSKATZAILEEK AURKEZTUTAKO IZENDAPEN-AGIRIAK JASO, TALOIEKIN ERKATU ETA IKUSKATZAILEEI KARGUA EMAN

08:00ak eta 08:30ak bitartean, mahaia izendapen-agiriak jasoko ditu aurkezten diren hautagai-zerrendetako ikuskatzaileen eskutik.

Izendapen-agiriak pertsona bat hautagai-zerrenda baten ikuskatzaile izendatzen duten agiriak dira.

Izendapen-agiriak zenbakitu egingo dira aurkeztu ahala, zein hurrenkeratan aurkeztu diren jasorik geratzeko.

Mahaiburuak erkatu egingo ditu izendapen-agiriak eta mahaia emandako agirien artean dauden taloia (izendapenaren kopia), eta ea bat datozen begiratuko du.

Izendapen-agiriak eta taloiak berdinak baldin badira, kargua emango zaie ikuskatzaileei:

- Adieraziko zaio ikuskatzaileari mahaiak onarpena eman diola.
- Ikuskatzaileen izena mahaia eratzeko aktan jasoko da, dagokion atalean (mahaiak onarturiko ikuskatzaileen zerrendan).
- Azkenik, izendapen-agiriak ikuskatzaileei itzuliko zaizkie; mahaiak taloiak jaso ez baditu, ordea, gorde egingo ditu izendapen-agiriak, hauteskunde-espedienteari atxikitzeko.

Hautagai-zerrenda bakoitzeko, gehienez bi ikuskatzailek baino ezin izango dute jardun mahaian.

Hautagai-zerrenda batetik bi ikuskatzaile baino gehiago agertzen badira, izendapen-agiria lehenengo aurkeztu duten biei emango zaie kargua.

SOR DAITEZKEEN ARAZOAK:

1. Mahaiak taloirik jaso ez izana.
2. Izendapen-agirien egiazkotasunaz zalantza egitea.
3. Ikuskatzaile moduan aurkeztu diren pertsonen nortasunaz zalantza egitea.
4. Ikuskatzaileak 08:30 baino geroago azaltzea; alegia, mahaiaren eraketa-akta egin ondoren.

Horrelako arazoren bat sortuz gero, mahaiburuak idatziz jasoko du mahaiaren eraketa-aktan, aurrerago argitu dadin, eta, gainera, kasu bat ala bestea den kontuan hartuta, honako hau egin beharko du:

- 1. kasuan (hauteskunde-agirien artean taloirik ez badago), izendapen-agiriak hauteskunde-espedientean txertatuko dira, eta 1 zenbakia duen gutun-azalean sartuko dira hauteskunde-eguna amaitzean.
- 1., 2. eta 3. kasuetan (taloiak jaso ez badira, eta zalantza egin bada izendapen-agirien egiazkotasunaz edo ikuskatzaile moduan aurkeztu diren pertsonen nortasunaz), mahaiburuak kargua emango die ikuskatzaileei, haiek hala eskatzen badute.
- 4. kasuan (ikuskatzaileak mahaiaren eraketa-akta egin ondoren azaltzea), ez zaie kargurik emango, baina mahaian bozka eman ahal izango dute.

Mahaiaren dokumentazioarekin batera jaso diren taloiak hauteskunde-espeditentari erantsi behar zaizkio, eta 1 zenbakiko gutun-azalean sartu.

ELECCIONES AL PARLAMENTO EUROPEO 2009
EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK 2009

Comunicación Electoral / Hauteskunde-barkaria

Asunto / Gai
NOMBRAMIENTO DE APODERADO
APODERADO/APODERADA (CONDOMINIO)
Fecha de la Elección / Hauteskunde-eguna

DATOS DE LA PERSONA PROPUESTA / PROPOSATUAKO PERTSONAREN DATUAK

1. Apellido / 1. Abizen
2. Apellido / 2. Abizen

Nombre / Izena
N.º D.N.I. / N.º D.N.I.

Profesión / Lanbidea
Eduki / Adina

Sexo / Sexua
Mujer / 1.2a
Hombre / 1.1a

Nacionalidad / Nazionaltasuna
C.P.I. / P.K.
Profesión / Lanbidea

DATOS DEL/DE LA REPRESENTANTE / ORDEZKARIAREN DATUAK

1. Apellido / 1. Abizen
2. Apellido / 2. Abizen

Nombre / Izena
N.º D.N.I. / N.º D.N.I.

Profesión / Lanbidea
Eduki / Adina

Sexo / Sexua
Mujer / 1.2a
Hombre / 1.1a

Nacionalidad / Nazionaltasuna
C.P.I. / P.K.
Profesión / Lanbidea

Formación Política / Alkartasun Politikoa

Para las Elecciones al Parlamento Europeo / Europako Parlamenturako Hauteskundeak (1)

De acuerdo con el artículo 76.2 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General nombro/apodero/a a la persona arriba indicada.
Nortasun Agiri Nazionala mahaiko kideei erakutsiz.

Indicamos después / Hauteskunde Arazidatze Orokorren buruzko Lege Organikaren 76.2 artikuluan enbaitu. Ahalordedun denak gisa identifikatzeko soilik, eta hauteskunde-propagandarik egin gabe.

EL LA SECRETARÍA DE LA JUNTA ELECTORAL / HAUTESKUNDE-BATZORDIBO (2)

AHALORDE-AGIRIAREN EREDUA AHALORDE

- Ahalordedunek beren burua identifikatu behar dute, izendapena (ahalorde-agiria) eta Nortasun Agiri Nazionala mahaiko kideei erakutsiz.
- Ahalordedunek ezin dute mahaian bozkatu, mahaiko erroldan egon ezean.

AHALORDEDUNAK

- Ahalordedunak (hautagai-zerrendaren ordezkariak hauteskundeetako egintza eta eragiketetan) hautesleku guztietara sar daitezke nahi dutenean, bozketaren eta boto-zenbaketaren nondik norakoa azter dezakete edozein mahaitan, erreklamazio eta protestak egin ditzakete, eta ziurtagiriak eska ditzakete.
- Ahalordedunek, euren hautagai-zerrendetako ikuskatzailerik ezean, mahaian ikuskatzaile jardun dezakete, eta mahaian eztabaidetan parte hartu, hizpidearekin baina boto-eskubiderik gabe.

IKUSKATZAILEAK ETA AHALORDEDUNAK

Ikuskatzaileek eta ahalordedunek ordezkatzzen duten erakunde politikoaren ikurra edo eranskailuak eraman ditzakete, baina beren burua hautagai-zerrenda horretako ikuskatzaile edo ahalordedun gisa identifikatzeko soilik, eta hauteskunde-propagandarik egin gabe.

5. MAHAIA ERATZEKO AKTA EGIN

1. AKTA BETE. Mahaiburuak honako inprimaki hau beteko du (mahaiaren dokumentazioaren barruan egon behar du):

[illegible]

Por el/la Presidente/a, se indica que conste en acta lo siguiente
Mahabharat ekta hosake haa jasteko arinda de:

[illegible]

Siendo las 8,30 horas del día indicado, queda constituida la Mesa Electoral, extendiéndose la presente Acta que, en prueba de conformidad, firman los asistentes.

Goian adierazitzako egunetan, goizko 08:30 direla, Hastekunde Mabaia eratu da; ondoren, alka hasi egin da, eta bertaratu guztiek izenpetu dute, adieraztutaren erakusgarri.

EL/LA PRESIDENTE/A
SE ASESORARÁ/SE/

LOS INTERVENTORES

LOS VOCALES

2. AKTA SINATU. Eratze-akta mahaiburuak, bi mahaikideek eta izendapen-agiria aurkeztu duten hautagai-zerrendetako ikuskatzaileek sinatuko dute.
3. AKTAREN KOPIAK EMAN hautagai-zerrendetako ordezkari, ahalordedunei edo ikuskatzaileei, eskatzen baldin badute.

Hautagai-zerrenda bakoitzeko aktaren kopia bakarra emango da.

Mahaiburuak eraketa-aktaren kopia ukatzen badio eskatzeko eskubidea duenari, edo berandu ematen badio, protesta egiteko aukera izango du. Protesta-agiriaren bi ale egingo dira, eta erreklamazio-egileek sinatu egingo dituzte. Ale bat hauteskunde-espedienteari batuko zaio (1 zenbakidun gutun-azalean sartuko da), eta bestea boto-zenbaketa orokorra egiteko eskumena duen hauteskunde-batzordeari bidaliko dio erreklamazio-egileak.

Bozketa



09:00etan

6. BOZKETAREN HASIERA.

7. BOZKETAREN NONDIK NORAKOA.

Gogoratu: noiz edo noiz bozketa egiteko beharrezko den elementuren bat falta bada (hauteskontzia, kabina, gutun-azalak, boto-orriak, agiriak eta inprimakiak), mahaiburuak Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinaraziko dio berehala, falta dena ekar dezan.

6. BOZKETAREN HASIERA

09:00etan puntuan, Mahaiburuak bozketaren hasiera iragarriko du, “hasi da bozketa” esanez.

- Hauteskunde-egun osoan mahaian egon behar dira mahaiko bi kide, gutxienez.

- Hauteskunde-egun osoan mahaiburuak hauteslekuko ordena zaindu behar du, eskuliburu honen amaieran azaltzen den moduan.

HURRENGO KASUETAN BOZKETA ETEN EGIN DAITEKE EDO BERTAN BEHERA UTZ DAITEKE:

-Eten: Mahaiburuak bozketa eten egin behar du hautagai-zerrendaren bateko boto-orriak amaitu eta hautagai-zerrenda horretako ikuskatzaile edo ahalordedunek ezin badiote boto-orri gehiago eman. Mahaiburuak gertatutakoa jakinaraziko dio, telefonoz, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, berehala boto-orri gehiago bidal ditzan. Gehienez ere ordubeteko etenaldia egingo da, eta gero bozketa beste horrenbeste luzatuko da.

-Bertan behera utzi: Bozketa bertan behera utzi behar da etenaldiak ordubete baino gehiago irauten badu, edo zerbaitek bozketa eragozten badu.

Bozketa bertan behera uztea erabaki aurretik, mahaiburuak mahaiko kide guztien iritzia entzun behar ditu, eta, ahal badu, telefonoz kontsultatu behar dio Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari.

Bozketa bertan behera uzteko erabakia idazki arrazoitu batean jasoko da. Mahaiburuak, erabaki hori hartu ondoren, ordura arte hauteskontzietan sartu diren boto-orri guztiak suntsitzeko aginduko du, eta berehala idazkiaren kopia bidaliko dio Probintziako Hauteskunde Batzordeari, eskuan edo posta ziurtatuaren bidez. Mahai batean bozketa bertan behera utziz gero, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak mahai horretarako hauteskunde-deia egingo du bi egun igaro aurretik.

7. BOZKETAREN NONDIK NORAKOA

1.- HAUTESLEAK BANAN-BANAN GERTURATUKO DIRA MAHAIRA.

2.- HAUTESLEAK BERE IZEN-ABIZENAK ESANGO DIZKIO
mahaiburuari.

3.- MAHAIKIDEEK ETA IKUSKATZAILEEK HAUTESLEAREN IZEN-ABIZENAK EGIAZTATUKO DITUZTE. Horretarako, honako agiri hauetako bat aurkeztu beharko dute:

- Nortasun Agiri Nazionala (NAN). Tramitatzen ari den NANaren frogagiriak ez du balio, hauteslearen argazkirik ez delako agertzen.
- Pasaportea (argazkiarekin).
- Gidabaimena (argazkiarekin).
- Europar Batasuneko hiritarrak bizileku-txartelarekin identifikatu ahal izango dira, baldin badaukate.

Agiri horiek iraungita egon arren onartu egingo dira, baina jatorrizkoak izan behar dira. Ez da fotokopiarik onartuko.

Agiri horietakoren bat erakutsi arren hauteslearen nortasunari buruzko zalantzarik badago, mahaikoek gehiengoz erabakiko dute, kontuan izanik ekarri diren agiriak eta aurrean dauden hautesleek eman dezaketen lekukotasuna.

Inguruabar horiek bilkura-aktan jaso behar dira.

4.-EGIAZTATU EGINGO DA HAUTESLEA BADAGOELA HAUTESLEEN ERROLDAKO ZERRENDAN:

Mahaikideek eta ikuskatzaiilek egiaztatu egin behar dute hauteslea erroldako zerrendan ageri dela.

Mahaian botoa eman dezaketen hautesleak hautesle-erroldako zerrendan ageri dira.

Zerrenda hori mahaiari ematen zaion dokumentazioaren barruan egon behar da.

Erroldako zerrendan egon ezik, hautesleak agiri hauetako bat aurkeztu beharko du mahaian bozkatu ahal izateko:

- A) Hautesleari mahaiko erroldan inskribatuta egoteko eskubidea onartzen dion epaia.
- B) Erroldako ziurtagiri berezia, Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzak emana, hautesleak boto-eskubidea mahai horretan erabili ahal dezan.

Erroldako ziurtagiri bereziaren bitartez herritarrak frogatu egin dezake indarrean dagoen hautesle-erroldan izena emanda dagoela, nahiz eta bere daturik agertu ez edo okerreko datuak agertu hauteskunde-mahaiei banatzen zaizkien erroldako zerrenda ziurtatuetan.

Erroldako ziurtagiriak bi motatakoak izan daitezke:

1. Erroldatze-ziurtagiriak: hautesle-erroldan inskribatuta egon arren, mahaia bidalitako zerrenda ziurtatuan ageri ez diren herritarrei dagozkie.
2. Akats materialak zuzentzeko ziurtagiriak: mahaia bidalitako erroldako zerrenda ziurtatuan ageri diren hautesleen datu batzuk (izena, abizenak edo jaiotze-eguna) zuzentzeko ematen dira.

ELECCIONES HAUTESKUNDEAK

Delegación Provincial de

Certificación censal específica
Emisión-egonagiri berezia
DE ALTA

Fecha / Data

Apellido / Izena

Nº/ENL / ENL-alea

Fecha de nacimiento / Jaiotze-eguna

Municipio / Udaltzaia

Provincia / Probintzia

Datos / Datuak

Resolución / Erabakia

Nota: Esta certificación debe incluirse en el volumen número del Acta del Escrutinio y del Acta de la Sesión dentro del epígrafe "de correcciones y omisiones presunta de alta en el censo electoral".

EREDUA

ELECCIONES HAUTESKUNDEAK

Delegación Provincial de

Certificación censal específica
Emisión-egonagiri berezia
DE CORRECCION DE ERRORES

Fecha / Data

Apellido / Izena

Nº/ENL / ENL-alea

Fecha de nacimiento / Jaiotze-eguna

Municipio / Udaltzaia

Provincia / Probintzia

Datos / Datuak

Resolución / Erabakia

Nota: Esta certificación debe incluirse en el volumen número del Acta del Escrutinio y del Acta de la Sesión dentro del epígrafe "de correcciones y omisiones presunta de alta en el censo electoral".

EREDUA

Hautesleak berak eska diezazkioke Hautesle Erroldaren Bulegoari erroldako ziurtagiri bereziak, baita bozketaren egunean bertan ere, hauteslekuak ixteko ordua baino lehenago.

Faxeaz ere eska daitezke, Udalaren bidez, eta interesdunei bide beretik bidaliko zaizkie. Jatorrizko ziurtagiria nahiz Udalaren bidez faxez jasotakoa, biak izango dira baliozkoak.

Erroldako ziurtagiri bereziak kontuan hartu behar dira boto-emaleen zerrenda zenbakidunean, gero behar bezala konputatu daitezen boto-zenbaketaren aktan eta bilkura-aktan.

Erroldako ziurtagiri bereziak EZ DIRA NAHASTU BEHAR ERROLDA-TXARTELEKIN. Hautesle Erroldaren Bulegoak errolda-txartela bidaltzen die hautesle guztiei, informazio gisa.

Errolda-txartel horiek:

- EZ DUTE BALIO HAUTESLEAK IDENTIFIKATZEKO.
- EZ DUTE BALIO HAUTESLEEK BOZKATU AHAL IZATEKO.

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

e

Teléfono: / Telefon.: 901 101 900

En las listas electorales que se utilizarán en las próximas Elecciones figura Vd. inscrito en: Datoren Hauteskunderetan erabikito diren zerrendetan honako honetan zaude izenemana:

Municipio: Udalerria:
Distrito: Barrutia:
Local electoral: Hauteskunde-lekua:

Sección: Sekzioa:
Mesa: Mahaia:

Datos personales de su inscripción: Dute inskripzioaren datu pertsonalak:

Fecha de nacimiento: Jacotze-data:
D.N.I.: N.A.N.I.:

Delegación Provincial:

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

e

Europako Parlamenturako Hauteskundeak 2009

Elecciones al Parlamento Europeo 2009

Errolda-txartela

En cumplimiento del artículo 39.5 de la Ley Orgánica 5/1985 del Régimen Electoral General, se le remite esta tarjeta censal con los datos actualizados de su inscripción en el censo electoral vigente.

Hauteskunderen Erregimen Orokorari buruzko 5/1985 Lege Organikoak 39.5 artikuluan ezarritako betebeharrak, errolda-txartel hau igortzen zaizu, indaranga Hautesle-Eroldan agertzen zarenaren gaurkotutako datuekin.

Esta tarjeta tiene carácter puramente informativo.

Honako txartel horiek argeri gisako balio du.

Sr. cartero: por favor, indique con una X la causa de la devolución:

Postari Ja/And., adierazi mesedez X bidez itzultzearen zergatia:

Refusado Ez du hartu nahi	☐	1
Desconocido Ezazaguna	☐	2
Se aumentó sin dejar sellos Hutsekin utzi gabe alde egin zuen	☐	3
Dirección insuficiente Hutsekin zerbat falta da	☐	4
Fallecido Heriotzagatik	☐	5
Otras causas Bestelakoak	☐	6

ERROLDA-TXARTELAREN EREDUA

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

ELECCIONES HAUTESKUNDEAK

DELEGACIÓN PROVINCIAL DE

Asunto: Censo
CERTIFICACIÓN: EGIATZAPENA

FECHA: DATA

APPELLIDO P.º 1. DEUTURA
NOMBRE: IZENA
IDENTIFICADOR IDENTIFIKAZIOA

MUNICIPIO / UDALERRIA
PROVINCIA / PERTZENTZA

Datos de la inscripción censal: / Erroldaren datuak

DISTRITO: BARRUTIA
SECCIÓN: ATALA
MESA: MAHAIA

D. D.º

DELEGADO/A PROVINCIAL DE LA OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

CERTIFICA:

Que esta electora cuyos datos y demás circunstancias personales anteceden, se encuentra inscrita en el censo en el distrito y sección, que también se especifican.

Y para que conste, en cumplimiento de lo determinado en el artículo 73 de la Ley Orgánica 5/1985 del Régimen Electoral General, expido la presente certificación, a los solos efectos de que se pueda emitir el sufragio por correo.

EGIAZTATZEN DU:

Adierazi diren datuen jabe den hauteslea, ERROLDAN dagoela, aipatzen diren atal eta barrutian.

Eta jasate gara datuen 5/1985 Hauteskunde Arrauleko Orokorari buruzko Lege Organikoak 73. artikuluan ezarritzen duenaren betebeharrak eta botoa postaz eman ahal izateko, egiatziari hau egiten du.

EL/LA DELEGADO/A PROVINCIAL

SRA./ PRESIDENTE/A DE LA MESA ELECTORAL
HAUTESKUNDE MAHAIBURU JA/AND.

SECCIÓN: ATALA

DISTRITO: BARRUTIA

ERROLDAREN INSKRIPZIO-ZIURTAGIAREN EREDUA

Erroldako ziurtagiri bereziak, beste, EZ DIRA NAHASTU BEHAR ERROLDAREN INSKRIPZIO-ZIURTAGIRIAREKIN. Azken hori posta bidez botoa emateko dokumentazioaren barruan dago.

HAU ERE KONTUAN HARTU BEHAR DA:

- Mahaiko erroldan agertu arren, ezingo dute botoa mahaian eman, bertara joanda, botoa posta bidez emateko eskatu dutenek (erroldako zerrendan haien izenen ondoan “C” letra agertuko da, edo “posta bidezko botoa eskatu duten mahaiko hautesleen zerrendan” egongo dira, erroldako zerrendaren eranskinean).
- Ezin dute mahaian botoa eman, mahaiko erroldan agertu arren, beste mahai batean akreditatutako ikuskatzaileek.
- Mahaian botoa eman dezakete, mahaiko erroldan agertzen ez diren arren, mahai horretan akreditatutako ikuskatzaileek.

5. BOZKATZEKO GUTUN-AZALA JASOKO DA:

Botoa sekretua da.

Hautesleak mahaiburuari eskura eman behar dio gutun-azala, itxita.

Irakurtzen ez dakiten hautesleek, edo ezintasunen bat izateagatik boto-orria hautatzeko, gutun-azalean sartzeko edota mahaiburuari emateko gai ez direnek, laguntza eska diezaiokeste konfiantzako pertsona bati.

6.- GUTUN-AZALA HAUTESTONTZIAN SARTUKO DA:

Jarraian, mahaiburuak haxe egingo du:

- a) Une batez ere ez du gutun-azala jendearen bistatik ezkutatuko.
- b) Ahots ozenez, hauteslearen izena irakurri eta “eman botoa” esango du.
- c) Gutun-azala hautestontzian sartuko du.

Gogoan izan, gutun-azala hautestontzian sartu aurretik hauteslearen nortasuna eta erroldako inskripzioa egiaztatu behar dira.

Mahaiburuak sartu behar du gutun-azala hautestontzian, ez hautesleak.

7.- HAUTESLEAREN IZENA IDATZIKO DA BOTO-EMALEEN ZERRENDAREN ZENBAKIDUNEAN:

A) Mahaikideek, eta nahi duten ikuskatzaileek, hautesleen izen-abizenak idatziko dituzte boto-emaleen zerrenda zenbakidunean, botoa eman duten hurrenkera berean.

B) Horrez gain, hautesle-errolako zerrendan zein zenbaki duten ere adierazi beharko dute, edo, hala badagokio, errolako ziurtagiri berezia aurkeztu dutela adierazi.

Hautesleak eskubidea du boto-emaeleen zerrenda zenbakidunean bere izen-abizenak ondo idatzi diren begiratzeko.

IKUSMEN-URRITASUNA IZAN ETA BRAILLE SISTEMA EZAGUTZEN DUTEN PERTSONEN BOZKETA, erregelamendu bidez araututako boto-prozedura berezia erabilta (kide izatea egokitu zaizun hauteskunde-mahaian prozedura hori erabiltzeko eskaera egin duen norbait baldin badago)

Hauteskunde-mahaiko buruak, edo, hala badagokio, mahaikideetako batek boto-prozedura berezia osatzen duten agiriak emango dizkio ikusmen-urritasuna izan eta prozedura hori erabiltzeko asmoa azaldu duen hautesleari. Aurrez, NANaren bidez, prozedura hori erabiltzeko asmoa adierazi dutenen zerrendan agertzen dela egiaztatuko du; hauteskunde-mahaiaren esku egongo da zerrenda hori.

Jasotako agirietan, hautesleak prozedura hori erabiltzeko azalpenak aurkituko ditu, braille sisteman inprimatuta.

Halaber, jasotako agiriak erabiltzeko hauteslekuan egokitu den gunea non dagoen azalduko dio hauteskunde-mahaiko buruak edo, hala badagokio, mahaikideetako batek, eta bertara joaten lagunduko dio.

Behin botoa aukeratuta, hautesle guztientzat azaldutako bozketa-prozedura berari jarraituko zaio.

Nolanahi ere, ikusmen-urritasuna duten pertsonen sufragio-eskubidea gauzatzen laguntzen dien boto-prozedura berezia erabili beharrean, pertsona horiek, hala nahi badute, konfiantzazko pertsona baten laguntza izan dezakete boto-eskubidea baliatu ahal izateko, orain arte bezala.



Bozketaren amaiera eta botoen zenbaketa



Arratseko 08:00etatik aurrera

8. Bozketaren amaiera (20:00).
9. Mahaikoek eta ikuskatzaileek botoa emateko unea.
10. Boto-emaitzen zerrenda zenbakiduna sinatu.
11. Boto-zenbaketa.
12. Bozketaren emaitza aditzera eman.
13. Boto-zenbaketaren akta egin.
14. Bilkura-akta egin.

8. BOZKETAREN AMAIERA (20:00)

20:00etan, MAHAIBURUAK AHOTS OZENEZ ESANGO DU BOZKETA AMAITU DELA.

Bozketa eten egin behar izan bada, etenda egon den beste denboraz luzatu behar da bozkatzeko ordutegia.

Bozketaren amaiera iragarri ondoren, hauteslekuan edo hauteslekuko sarreran oraindik botoa eman ez duen hautesleren bat geratzen bada, mahaiburuak botoa ematen utziko die, eta ez dio beste inori utziko botoa ematen.

Jarraian, hauteslekuan geratzen den azken hautesleak botoa eman eta gero, mahaiburuak hautestontzi egokietan sartuko ditu POSTA BIDEZ BIDALITAKO BOTO-ORRIAK, hain justu, postaz bozkatzeari eskatu zuten hautesleenak.

Horretarako, urrats hauek beteko dira:

- 1.- Banan-banan ireki mahaiburuari bidalitako gutun-azalak, eta egiaztatu boto-emaitzen erroldaren inskripzio-ziurtagiria ez ezik, posta bidezko botazioaren gutun-azala ere badakartela.

BOTO-ORRIA DUEN GUTUN-AZALA EZ DA IREKI BEHAR.

Erroldaren inskripzio-ziurtagiria falta bada, botoa ezin da baliodun, baliogabe edo zuritzat hartu, ezin delako boto-emailea kontuan hartu. Horregatik, gutun-azala eta barruan duen dokumentazio guztia suntsitu egin behar da.

2.- Hauteslea mahaiko erroldan inskribaturik dagoela egiaztatu.

3.- Hautestontzi egokian sartu bozkatzeko gutun-azala.

4.- Hauteslearen izena idatzi boto-emaileen zerrenda zenbakidunean.

Mahaikideek hauteslearen izena idatziko dute boto-emaileen zerrenda zenbakidunean.

9. MAHAIKOEK ETA IKUSKATZAILEEK BOTOA EMATEKO UNEA

Ondoren, mahaikoek eta mahaian akreditatutako ikuskatzaileek botoa eman ahal izango dute. Mahaiburuak hautestontzian sartuko ditu gutun-azalak.

Ikuskatzaileren bat mahaiko erroldan ageri ez bada, zein atal eta hauteskunde-mahai dagozkion jarri behar da boto-emaileen zerrenda zenbakidunean.

10. BOTO-EMAILEN ZERRENDA ZENBAKIDUNA SINATU

Hori guztia egin ondoren, mahaikideek eta ikuskatzaileek boto-emaileen zerrenda zenbakiduna sinatuko dute.

Zerrendako leku hauetan sinatu behar da:

- orri bakoitzaren ertzean, eta
- idatzitako azken izenaren azpi-azpian.

11. BOTOAK ZENBATU

Bozketa amaiturik, berehala eta etenunerik gabe, botoak zenbatu egingo dira.

Boto-zenbaketa jendaurreko ekitaldia da, eta ezin da gelditu harik eta boto guztiak zenbatu arte.

Mahaiburuak berehala kanporatuko ditu botoak zenbatzeko trabak edo nahasteak eragiten dituzten pertsonak.

BOTOAK HONELA ZENBATU BEHAR DIRA:

1. Mahaiburuak

- Hautestontzia irekiko du.
- Banan-banan gutun-azalak atera, ireki, eta ahots ozenez esango du bozkatutako hautagai-zerrendaren izena.

Irekitako gutun-azalak gorde egin behar dira, berriz zenbatu ahal izateko.

Gutun-azalak eta boto-orriak aztertzean, hautagai-zerrenden aldeko boto baliodunez gainera honelakoak ere aurki daitezke:

- boto zuriak, eta
- boto baliogabeak

Boto horiek ere kontuan hartu behar dira, kontaketa egiteko zein bozketaren emaitza zehazteko.

BOTO ZURIAK dira:

- Barruan boto-orriak ez duten gutun-azalak.

BOTO BALIOGABEAK dira:

- Eredu ofizialaz besteko gutun-azal edo orritan emandako botoak.
- Gutun-azalik gabeko boto-orriak.
- Hautagai-zerrenda bat baino gehiagoren boto-orriak dituzten gutun-azalak (boto-orri guztiak hautagai-zerrenda berekoak badira, boto baliodun bakarra kontatuko da).
- Aldatuta dauden gutun-azaletan emandako botoak.
- Gutun-azala irekitakoan boto-txartelak aldaketaren bat duenean, bai aldatu, gehitu, nabarmendu edo marratu egin delako hautagai baten izena, edo hautagai-zerrendaren izena, siglak edo ikurra, edo aldatu egin delako hautagai-zerrendaren ordena, edo aspak, gurutzeak, marrak, esaldiak edo leloak jarri direlako boto-txartelaren

aurreko edo atzeko aldean, edo boto-txartela hautsirik edo urraturik dagoelako”.

- Boto-orria irakurriko du, eta, ondoren, mahaikide, ikuskatzaile eta ahalordedunei erakutsiko die.

Kontaktetan bertan dagoen notario, hautagai edo hautagai-zerrendetako ordezkariaren batek edukiari buruz zalantzarik izanez gero, aukera izango du boto-orriak eskatzeko eta mahaikideen aurrean aztertzeko.

2. Hauteskunde-mahaia:

- Hautestontzitik ateratako gutun-azalen kopurua eta boto-emaileen zerrenda zenbakidunean jaso diren boto-emaileen kopurua bat datozela direla egiaztatuko du.

Boto-emaileen zerrenda zenbakituaren barruan sartuta egongo dira mahaiko erroldan erroldatzeko ziurtagiri berezia aurkeztu dutenak ere.

Pertsona horiek, hasieran, ez zeuden jasota mahaiko Erroldako Zerrendan, baina Erroldatzeko Ziurtagiri Berezia aurkeztu ondoren, botoa emango dute dagokien mahaian.

- Boto-zenbaketaren aurkako erreklamazioak eta protestak ebatziko ditu. Mahaiburuak galdetuko du ea inork protestarik egin nahi duen boto-zenbaketaren aurka. Protestarik izanez gero, mahaia gehiengoz hartuko du erabakia.
- Boto-orriak suntsitu egingo ditu jendaurrean.

Hala ere, EZ DIRA SUNTSITU BEHAR honako boto-orri hauek:

- Baliogabekotzat jo direnak (boto baliogabeak).
- Erreklamazioen baten xede izan direnak.

Suntsitu gabeko boto-orriekin haxe egin behar da:

- Mahaiko kideek sinatu egingo dituzte.
- Bilkura-aktari erantsiko zaizkio (boto-zenbaketa amaitu eta akta egiten denean).
- 1 zenbakiko gutun-azalean sartuko dira.

12. BOZKETAREN EMAITZA ADITZERA EMAN

Mahaiburuak, ahots ozenez, bozketaren emaitza aditzera emango du.

Adierazpena egitean, datu hauek eman behar ditu:

- Erroldatutako hautesleen kopurua (hautesle-erroldako zerrenda ziurtatueta ageri direnak).
- Aurkeztutako errolda-ziurtagirien kopurua (bereizita adierazi behar dira erroldako alta-ziurtagiriak eta akats materialen zuzenketen ziurtagiriak).
- Boto-emaleen kopurua.
- Boto baliogabeen kopurua.
- Boto zurien kopurua.
- Hautagai-zerrenda bakoitzak lortu dituen botoen kopurua.

13. BOTO-ZENBAKETAREN AKTA EGIN

Hauteskundeen emaitza aditzera eman ondoren, boto-zenbaketaren akta egin behar da. Honela egingo da:

- Inprimaki hau bete: boto-zenbaketaren akta (mahaiaren dokumentazioaren barruan egon behar du).
- Boto-zenbaketaren akta sinatu: Mahaiburuak, bi mahaikideek eta hautagai-zerrendetako ikuskatzaileek sinatuko dituzte boto-zenbaketaren aktak.
- Boto-zenbaketaren akta gelako sarreran jarriko da. Boto-zenbaketaren jatorrizko akta hauteslekuaren kanpoaldean edo sarreran jarri behar da.
- Boto-zenbaketaren aktaren kopiak banatuko dira.

Formulario de Elecciones al Parlamento Europeo 2009, Acta de Escrutinio de la Mesa. El formulario incluye campos para Provincia, Municipio, Distrito censal, Sección y Mesa. Secciónes para Presidente (A), Vocales, Interventores, y un apartado para el número de votos obtenidos por cada candidatura. Incluye una tabla para el escrutinio de los votos y una sección para las firmas de los presentes.

EREDUA

Aktaren kopiak emango zaizkie pertsona hauei, hemen ageri diren hurrenkeran:

1. Lehenengo, Administrazioaren ordezkariari.

Administrazioak izendatutako ordezkari horrek hauteskunde-mahaiko boto-zenbaketaren aktaren kopia jasoko du, Gobernuak hauteskundeetako behin-behineko emaitzak eskaini ahal izateko.

2. Ondoren, hautagai-zerrendetako ordezkariari, ikuskatzaileari, ahalordedunei edo hautagaiei, hala eskatuz gero.

Hautagai-zerrenda bakoitzeko aktaren kopia bakarra emango da.

14. BILKURA-AKTA

Ondoren, bilkura akta egingo da, honako urrats hauei jarraituz:

1. **Inprimaki hau bete: bilkura-akta** (mahaiaren dokumentazioaren barruan egon behar du).

[illegible][illegible]

2. Bilkura-akta sinatu:

Mahaiburuak, bi mahaikideek eta hautagai-zerrendetako ikuskatzaileek sinatuko dituzte bilkura-aktak.

3. Bilkura-aktaren kopiak banatuko dira.

Hautagai-zerrendetako ordezkariak, ahalordedunek, ikuskatzaileak eta hautagaiek aktaren kopia berehala jasotzeko eskubidea dute.

Hauteskundeetako agiriak prestatu eta aurkeztea. Mahaiaren eginkizunen amaiera

15. HAUTESKUNDEETAKO AGIRIAK GUTUN-AZALETAN PRESTATU

Aurreko lanak amaitu ondoren, hauteskunde-agiriak prestatuko dira. Honela egingo da:

1. HAUTESKUNDEETAKO AGIRIAK HIRU GUTUN-AZALETAN BANATUKO DIRA:

A) 1 ZENBAKIKO GUTUN-AZALA

1 zenbakiko gutun-azalean agiri hauek sartu behar dira:

1. Mahaiaren eraketa-aktaren jatorrizko alea.

Mahaia eratzeko akta kopia-paperean egingo da; hortaz, mahaiko kideek behar beste ale edukiko dituzte, kopiak jaso behar dituztenei kopia bana emateko.

2. Bilkura-aktaren jatorrizko alea.

3. Bilkura-aktan aipatzen diren agiriak. Zehazki, honako agiri hauek sartuko dira: boto-emaileen zerrenda zenbakitua, aurkeztutako errolda-

ziurtagiriak, ikuskatzaileen izendapen-agirien taloiak, erabilitako hautesle-eroldako zerrenda, eta boto-orri baliogabeak edo erreklamazioa jarri zaienak.

B) 2 ETA 3 ZENBAKIKO GUTUN-AZALAK.

Hauteskunde bakoitzeko 2. eta 3. gutun-azaletan agiri hauek sartuko dira:

- mahaiaren eraketa-aktaren kopia, eta
- bilkura-aktaren kopia.

2. GUTUN-AZALAK ITXI ETA SINATUKO DIRA

Gutun-azalak itxi ondoren, mahaiburuak, mahaikideek eta ikuskatzaileek sinatu egin beharko dituzte, sinadurek azal-hegalak gurutzatzen dituztela.

16. GUTUN-AZALAK AURKEZTU

1.- 1 ETA 2 ZENBAKIKO GUTUN-AZALAK LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIAN EDO BAKE-EPAITEGIAN AURKEZTU.

- Mahaiburuak mahaiari dagokion barrutiko lehen auzialdiko epaitegian edo bake-epaitegian aurkeztu behar ditu 1 eta 2 gutunazalak.

Nahi izanez gero, mahaikide bat eta ikuskatzaileak ere joan daitezke mahaiburuari laguntzera.

Segurtasun Indar eta Kidegoek pertsona horiei lagun egingo diete eta, behar izanez gero, bidaia erraztuko diete.

- Epaileak agiriak jasoko ditu eta hartu-agiria sinatuko du (hartu-agiria mahaiaren dokumentazioaren barruan egon behar da).

BEHIN 1 ETA 2 ZENBAKIKO GUTUN-AZALAK EPAILEARI EMANDA, AMAITU DIRA EPAITEGIRA JOAN DIREN MAHAIKO KIDEEN EGINKIZUNAK.

2.-3 ZENBAKIKO GUTUN-AZALA POSTA ZERBITZUKO LANGILEARI EMAN.

- Mahaikideetako batek, gutxienez, hauteslekuan egon behar du harik eta 3 zenbakiko gutun-azala entregatu arte.
- Posta Zerbitzuak langile bat bidaliko du hauteskunde-mahaira, 3 zenbakiko gutun-azalaren bila.
- Posta Zerbitzuko langileak hartuko du gutun-azala, eta hartu-agiria sinatuko du (hartu-agiriak mahaiaren dokumentazioaren barruan egon behar du).

3 ZENBAKIKO GUTUN-AZALA POSTA-ZERBITZUKO LANGILEARI EMAN ONDOREN, AMAITU DIRA HAUTESLEKUAN GERATUTAKO MAHAIKIDEAREN EGINKIZUNAK.



**EUROPAKO
PARLAMENTURAKO
HAUTESKUNDEAK 2009**

Ordena Publikoa

Hauteskunde-egunean behar-beharrezkoa da ordena publikoari buruzko arauak zorrotz betetzea, eta mahaiburuak dauka arau horiek betearazteko ardura.

Hauteslekuaren barruan, are inguruetan ere, ezinbestekoa da ordenari eustea hautesleen boto-askatasuna bermatu ahal izateko.

1. MAHAIBURUAREN AHALMENAK

- Mahaiburuak hauteslekuaren barruan aginte osoa dauka ordena publikoari buruzko arauak zorrotz betearazteko, hautesleen askatasuna bermatuta egon dadin eta Legea bete dadin.
- Horretarako, hauteskunde-mahaiko buruak esku hartzeko eskatu ahal izango die hauteslekuak babesteko ardura duten Segurtasun Indar eta Kidegoei.
- Segurtasun Indar eta Kidegoek, hauteslekuaren barruan zein kanpoan, mahaiburuari lagundu behar diote hala eskatzen badie.

2. ORDENA PUBLIKOARI BURUZKO ARAUAK

- Hauteslekuko sarrera beti egon behar da trabarik gabe eta irekita hauteslekura sartzeko eskubidea duten pertsonentzat.

Pertsona hauek bakarrik dute hauteslekuetara sartzeko eskubidea:

- Hautesleak, eta haien laguntzaileak, laguntzarik behar dutenen kasuan.
- Hautagai-zerrendetako ordezkariak.
- Hautagaiak.
- Ahalordedunak eta ikuskatzaileak.

- Notarioak.
- Agintaritzaren agenteak, mahaiburuak deituz gero.
- Hauteskunde-batzordeetako kideak.
- Instrukzioko epaileak eta haien eskuordetuak.
- Administrazioaren ordezkariak.

Gainerakoek mahaiburuaren baimena behar dute hauteslekuan egoteko.

- Hauteslekura sartzeko traba egin dezaketen taldeak eratu daitezkeen eragotzi behar da hauteslekuan edo inguruetan.
- Hauteslekuaren inguruetan ez da onartu behar boto-eskubidea askatasunez erabiltzeko oztopo izan daitezkeen inor egotea. Mahaiburuak egokitzen jotzen dituen neurri guztiak hartu behar ditu hori eragotzeko.
- Inor ezin da hauteslekuan sartu armekin edo arma gisa erabil daitezkeen tresnekin, hauteslekua babestu behar duten agenteak izan ezik, mahaiburuak hala eskatuz gero.
- Ez hauteslekuan ez inguruetan ezin da hauteskunde-propagandarik egin.

3. GORABEHEREN BERRI JASOTZEA BILKURA-AKTAN

Hauteslekuko ordena hautsi duten gorabeherak bilkura-aktan jasoko dira eta horien eragileen izen-abizenak jarriko dira.